

*Urruñelako Udala**Ayuntamiento de Urruñel**Eguzkoa*

## 2006KO AZAROAREN 29KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 29 DE NOVIEMBRE DE 2006

**Akta zenbakia:** 13/2006**Bilera data:** 2006-11-29**Bilera mota:** Ohiko osoko bilkura**Deialdia:** Lehenengoa**Ordua:** 15:30-16:05**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia**Acta nº:** 13/2006**Fecha:** 29-11-2006**Tipo de reunión:** Pleno ordinario**Convocatoria:** Primera**Hora:** 15:30 – 16:05**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento**Bertaratutakoak:****Alkatea:** Florentino Ugalde Atxaga**Zinegotziak:**

Maria Isabel Vaquero Montero

Jose M. Aldanondo Ugalde

Jose Luis Aramendi Goikoetxea

Maria Angeles Iriondo Mugica

Gaspar Esnaola Agesta

Hermenegildo Gonzalez Moran

Consuelo Frutos Gonzalez

Jose Guirado Novo

Juan Maria Tomasena Alzuri

M. Asuncion Guerra Alonso

**Etortzerik ez zutela adierazi ez dutenak:**

M. Teresa Pagazaurtundua Ruiz

Jose Maria Mugica Heras

**Bitarteko idazkaria:**

Nagore Alcorta Elorza

**Reunidos:****Alcalde:** Florentino Ugalde Atxaga**Concejales:**

Maria Isabel Vaquero Montero

José M<sup>a</sup> Aldanondo Ugalde

José Luis Aramendi Goikoetxea

Maria Ángeles Iriondo Múgica

Gaspar Esnaola Agesta

Hermenegildo González Morán

Consuelo Frutos González

José Guirado Novo

Juan Maria Tomasena Alzuri

M. Asuncion Guerra Alonso

**Ausentes, que no se han excusado:**M<sup>a</sup> Teresa Pagazaurtundua Ruiz

José María Múgica Heras

**Secretaria interina:**

Nagore Alcorta Elorza

**Aztergaiak:**

1.- 2006ko irailaren 15, urriaren 11 eta azaroaren 2ko aktak onestea, bidezkoa bada.

2.- Alkatezako eta Tokiko Gobernu Batzarreko ebazpenen berri ematea.

3.- Lokalak eta etxebizitzak erosteko kreditu aldaketa, eta horiek finantzatzeko mailegu eskaera.

4.- UDALHITZ hitzarmena onartzea

5.-Galde-eskeak

**Orden del día:**

1.- Aprobación, si procede, de las actas de 15 de septiembre, 11 de octubre y 2 de noviembre de 2006.

2.- Conocimiento de resoluciones de Alcaldía y de la Junta de Gobierno Local.

3.- Modificación de crédito para compra de locales y viviendas y solicitud de préstamo para su financiación

4.- Aprobación del Convenio UDALHITZ

5.- Ruegos y preguntas.



## 2006KO AZAROAREN 29KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 29 DE NOVIEMBRE DE 2006

### 1.- 2006ko irailaren 15, urriaren 11 eta azaroaren 2ko aktak onestea, bidezkoa bada

Alkateak puntu hau aurkeztu du esanez 2006ko irailaren 15eko, urriaren 11ko eta azaroaren 2ko aktak onartu behar dituztela; gero, inork ezer esateko ba ote duen galdetu du.

EBko zinegotzi Juan M. Tomasena eskatu du hitza, eta 2006ko urriaren 11ko akta aldatzeko eskatu du, hain zuzen, lokalak egokitzeko aurkezten diren obra proiektuei eta ematen diren baimenei buruzko zatia aldatzeko. Esan du aktan ez dela jaso berak adierazitakoa, alegia, bere ustez "etxebizitzak bulego gisa kamuflatu direla". Bestalde, 2006ko azaroaren 2ko akta aldatzeko ere eskatu du, ur horniduraren tasa igotzeko proposamenari buruzko zatia alegia. Adierazi du akta horretan jaso egin behar dela KPI gehi 0,5 igotzeko ados zegoela.

Goian adierazitako aldaketak onartu dira, eta Udalbatzak aho batez onartu ditu 2006ko irailaren 15eko, urriaren 11ko eta azaroaren 2ko aktak.

### 2.- Alkatezako eta Tokiko Gobernu Batzarreko ebazpenen berri ematea

Deialdiarekin batera bidalitako 2006ko azaroaren 3tik 2006ko azaroaren 23ra bitarteko alkatezako ebazpenen berri eman zaie Udalbatzako kideei.

Bestalde, Tokiko Gobernu Batzarrak 2006ko urriaren 23an eta 2006ko azaroaren 6an egindako bilkuretako akten berri ere eman zaie, eta, beraz, jakinaren gainean geratu dira.

### 1.- Aprobación, si procede, de las actas de 15 de septiembre, 11 de octubre y 2 de noviembre de 2006

El alcalde ha presentado este punto señalando que hay que aprobar las actas de 15 de septiembre, 11 de octubre y 2 de noviembre de 2006; asimismo, ha preguntado si alguien tiene algo que comentar a este respecto.


Ha solicitado la palabra el concejal de IU, Juan Mª Tomasena para solicitar una modificación en el acta del 11 de octubre de 2006, en el que se planteaba el tema de los proyectos de obras que se presentan y las licencias que se otorgan para habilitar los locales. Expresa que en ese acta no se recoge lo señalando por él referente a que dijo que pensaba que se "camuflan las viviendas como oficinas". Solicita, a su vez, una modificación en el acta de 2 de noviembre de 2006, en el que se planteaba el tema de la subida de la tasa por el suministro de agua. Expresa que en esa acta se debe señalar la conformidad que mostró con respecto a la subida del IPC más el 0,5 %.

Aceptándose las modificaciones arriba señaladas, el Pleno ha aprobado de forma unánime las actas de las sesiones plenarias celebradas los días 15 de septiembre, 11 de octubre y 2 de noviembre de 2006.

### 2.- Conocimiento de resoluciones de Alcaldía y de la Junta de Gobierno Local.

Se ha dado cuenta a los miembros de la Corporación de los decretos de Alcaldía emitidos desde el 3 de noviembre de 2006 al 23 de noviembre de 2006, y que se han enviado junto con la convocatoria.

Asimismo, se ha dado cuenta a los miembros de la Corporación de las actas de las sesiones celebradas por la Junta de Gobierno Local el 23 de octubre de 2006 y el 6 de noviembre de 2006, de modo que han quedado informados.

*Urnieta Udalak**Ayuntamiento de Urnieta**Signatario*

## 2006KO AZAROAREN 29KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 29 DE NOVIEMBRE DE 2006

### 3.- Lokalak eta etxebizitzak erosteko kreditu aldaketa, eta horiek finantzatzeko mailegu eskaera

Alkateak hartu du hitza, eta adierazi du gai hau azaldu zela azaroaren 23ko Ogasuneko Informazio batzordean, eta beraiek proposatutako kreditu aldaketa bi mailegu eskatzeko dela:

- Bata, osasun etxerako eta eguneko zetrorako lokalak erosteko, **3.893,32** metro koadroko eremua guztira. Erosketa hori jasota dago Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Departamentuak, Urnieta Udalak eta Viviendas de Urnieta SL enpresak sinatutako hitzarmenean.

- Bestea, alokairu sozialean emateko 10 etxebizitza erosteko.

Eztabaidaren ostean, alkateak botazioa egitea proposatu du, eta honako emaitza hau izan du:

Alde: 11 (6 EAJ-EA, 3 PSE-EE, 1 EB, 1 PP)  
Kontra: 0  
Abstentzioak: 0

Ikusirik 2006ko azaroaren 23ko Ogasuneko Informazio Batzordean hitz egin zela gai honi buruz eta eman zela informazioa.

Botazioaren ostean, Udalbatzak gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin hartu du honako

### 3.- Modificación de crédito para compra de locales y viviendas y solicitud de préstamo para su financiación.

Toma la palabra el Alcalde para señalar que este tema se trató en la Comisión Informativa de Hacienda celebrada el 23 de noviembre y que su propuesta de modificación de crédito se corresponde con la solicitud de dos préstamos:

- Uno , para la compra de locales para el centro de salud y el centro de día, con una superficie en su totalidad de **3.893,32** metros cuadrados – adquisición prevista en el Convenio firmado entre el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, el Ayuntamiento de Urnieta y Viviendas de Urnieta S.L-

- El otro para la adquisición de 10 viviendas para destinarlas a alquiler social.

Tras el debate , el alcalde propone someterlo a votación, obteniendo el siguiente resultado:

A favor: 11 (6 PNV-EA, 3 PSE-EE, 1 IU, 1 PP)  
En contra: 0  
Abstenciones: 0

Visto que en la Comisión Informativa de Hacienda celebrada el 23 de noviembre de 2006 se trató e informó sobre este punto.


Tras la votación, el Pleno con el voto a favor de la mayoría absoluta de los miembros que conforman la Corporación ha adoptado el siguiente

### AKORDIOA

**Lehenengoa.-** 2.456.036,17 euroko kreditu aldaketa onartzea, inbertsio hauek egiteko:

### ACUERDO

**Primero .-** Aprobar la modificación de crédito por un importe global de **2.456.036,17 €** para la realización de las siguientes inversiones:



## 2006KO AZAROAREN 29KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 29 DE NOVIEMBRE DE 2006

- Lokalak erosteko: 1.202.024,41 €
- Etxebizitzak erosteko: 1.254.000,76 €
- Compra de locales: 1.202.024,41 €
- Compra de viviendas: 1.254.000,76€

**Bigarrena.-** Onartzea lehenengo atalean adierazitako inbertsioak finantzatzeko bi mailegu eskatzea.

Gero, PSE-PSOeko ordezkari Hermenegildo Gonzalez Moranek idatzi hau irakurri du:

*"Lokalak eta etxebizitzak erosteko kreditu aldaketa eta hori finantzatzeko mailegu eskaera gai zerrendako 3. puntuaren aldeko botoa zergatik emango dugun azaldu nahi dugu, garrantzizko irizten diegun XEHETASUN batzuk eginez azaldu ere:*

1.- Behingoz eta aitzakiarik gabe osasun etxe berria eraikitzea da gure asmo garbia, gure herriak premia handia baitu.

2.- Etxeberriko lokalak erostearekin ados gaudela adierazi nahi dugu; erosketa prezioa ordain dezake Udalak. Osasun etxerako bakarrik balitz, pozik geundeke; nolana ere, modu horretan lokal gehiago izango ditugu etorkizuneko gizarte proiektuetarako. Oso adierazgarria da 3.893,32 m<sup>2</sup>-ko 1.202.024,41 euro ordaintzea; izan ere, haur eskolarako kostua 961.620 eurokoa izan zen, 800 m<sup>2</sup>-ren truke.

3.- Urnietan eguneko zentro bat izatearen alde gaude, eskaera bai baitago. Alabaina, ez gaude erosiko ditugun lokaletan jartzeko proposamenaren alde. Kokaleku hori akats larria iruditzen zaigu.

4.- Ulertzen dugu eta bat gatoz proposatutako hamar etxebizitzak erosteko akordioarekin, gero urnietarren zerbitzura jartzeko, alokairuan.

5.- Ulertzen dugu eta bat gatoz bost udal etxebizitza besterentzearekin, Vegasako etxebizitzak erosteko 1.254.000,76 euroko mailegua amortizatzen.

6.- Azkenik, EZ gatoz bat maileguak 2.456.036,17 eurokoak izatearekin; izan ere, altxortegian 1.006.824,02 euroko geldikin garbia dugu. Guk 1.456.035,17 euroko mailegua eskatuko genukeen bi erosketetarako, milioi bat gutxiago".

**Segundo.-** Aprobar la formalización de dos préstamos para la financiación de las inversiones señaladas en el apartado primero.

A continuación el representante del PSE-PSOE Hermenegildo González Morán ha dado lectura al siguiente escrito :

*"Queremos argumentar nuestro voto a favor del punto 3 del orden del día, modificación de crédito para la compra de locales y viviendas y solicitud de préstamo para su financiación, y lo queremos hacer con unos MATICES que consideramos importantes:*

1.- Nuestra clara intención es que de una vez por todas y sin excusas se construya el nuevo centro de salud que tanta falta nos hace en nuestro municipio.

2.-Queremos manifestar nuestro acuerdo con la compra de locales en Etxe-Berri, el precio de compra es asumible por el Ayuntamiento, aunque solo fuera para el Centro de Salud ya nos daríamos por satisfechos, no obstante así podremos contar con más locales para futuros proyectos Sociales. Es muy significativo el hecho de pagar 1.202.024,41 euros por 3.893,32 m<sup>2</sup>, cuando para la guardería el coste fue de 961.620 euros por 800 m<sup>2</sup>.

3.-Estamos a favor de que haya un centro de día en Urnieta, la necesidad así lo demanda, sin embargo no compartimos la propuesta de ubicarlo en los locales que vamos a adquirir. Esta ubicación nos parece un tremendo error.

4.-Entendemos y compartimos el acuerdo de la compra de las diez viviendas propuestas, para ponerlas al servicio de los urnietarras en régimen de alquiler.

5.-Entendemos y compartimos la enajenación de cinco viviendas municipales para amortizar el préstamo de compra de viviendas en Vegasa por un importe de 1.254.000,76 euros.

6.-Y último, NO compartimos que los préstamos asciendan a 2.456.036,17 euros, cuando contamos con un remanente de tesorería líquido disponible de 1.006.824,02 euros. Nosotros hubiéramos propuesto un préstamo para las dos compras de 1.456.036,17 de euros, un millón de euros menos."

*Urnieta Udala**Spuzkoa**Ayuntamiento de Urnieta*

## 2006KO AZAROAREN 29KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 29 DE NOVIEMBRE DE 2006

EAJ-EAko bozeramaile Maribel Vaquerok hartu du hitza, eta guztira **2.456.036,17** euro diren bi mailegu horiei buruz esan du argi utzi nahi duela herri honek erantzun diezaiokeela zorpetze horri, eta, gainera, Ogasun Batzordean esan zuten bezala, horietako bakoitzerako amortizazio aurreratuko plan bat egin asmo dutela. Nabarmendu du inbertsio horiek beharrezkoak direla herriarentzat.

EBko ordezkari Juan M. Tomasena bi inbertsioak bereiziz erantzun du:

- a.- Etxebizitzak erostea: 1.254.000,76 €  
Inbertsio horrekin ados dagoela adierazi du. Gainera, esan du kontuan hartu behar dela Eusko Jaurlaritzak etxebizitza bakoitzeko 30.000 euroko diru laguntza ematen duela.

- b.- Osasun etxerako eta eguneko zentrorako lokalak erostea.  
Adierazi du eragiketa ona dela Udalarentzat 3.893,32 m<sup>2</sup> metro koadroko 300 euroan erostea. Nabarmendu du ERABILERA PUBLIKOA ematen jakin behar dutela, Urnieta-arentzat eta herritarrentzat eraginkorrak izango diren proiektuekin. Jarraitu du esanez lur edo espazio fisikoa OSAKIDETZAREN esku jartzen ez duten bitartean ez dela Osakidetza proiekturik egongo; hori dela eta, galdetu du noiz arte atzeratuko den osasun etxea. Nabarmendu du Osakidetza estutu behar dela, osasun etxe berriaren zehaztasun gehiago eman ditzaten. Juan M. Tomasena esan du herritar gisa duen erantzukizunagatik planteatu duela eta EBren proiektua ez zela berea, baina, ikusirik zein premia handia dagoen osasun etxe berria izateko, lehenbailehen hasi beharra dagoela. EBko ordezkariak uste du tranpa dela abagunea aprobetxatu izana udalbatzar honetan eguneko zentroarena konpontzeko. Nolanahi ere, azaldutako baldintza ikusita, exijitzen du eguneko zentroaren proiektua lehenbailehen egin dadila, Udalaren jabetzako eremu horren prestasuna ikusi eta luze gabe erabili ahal


Toma la palabra la portavoz del PNV-EA Maribel Vaquero señalando, en lo que se refiere a la solicitud de los dos préstamos, que suman un total de **2.456.036,17 €**, que quieren dejar claro que este municipio puede soportar ese nivel de endeudamiento, y además, tal y como lo comentaron en la Comisión de hacienda, para uno de ellos se prevé una plan de amortización anticipada. Recalca que las inversiones propuestas son necesarias en el municipio.

Contesta el representante de IU- EB Juan M<sup>a</sup> Tomasena distinguiendo las dos inversiones:

- a.- Compra de viviendas: **1.254.000,76€**  
Muestra su conformidad con respecto a esta inversión. Señala, a su vez, que hay que tener en cuenta que el Gobierno Vasco subvenciona con 30.000€ por cada vivienda.

b.- Compra de locales destinados a la ubicación del centro de salud y el centro de día.  
Señala que la adquisición de los 3.893,32 m<sup>2</sup> a unos 300 € el metro cuadrado es una buena operación para el Ayuntamiento. Recalca que hay que saber darle UTILIDAD PÚBLICA con proyectos eficaces para Urnieta y sus ciudadanos. Continua señalando que mientras no pongan a disposición de OSAKIDETZA el terreno o espacio físico no habrá PROYECTO de OSAKIDETZA, por lo que pregunta hasta cuándo será el retraso del Centro de salud. Recalca que hay que presionar a Osakidetza para que aceleren en la concreción del nuevo Centro de Salud. Señala Juan M<sup>a</sup> Tomasena que lo plantea por responsabilidad ciudadana y que no era suyo el proyecto de EB-IU, pero que dada la urgente necesidad del nuevo centro de salud hay que comenzar de inmediato.

El representante de IU- EB considera una trampa el haber aprovechado la coyuntura para resolver lo del Centro de día en éste Pleno. No obstante, viendo el condicionante expuesto, exige que se realice el proyecto del centro de día para ...personas " inmediatamente", para conocer la disponibilidad de una superficie patrimonio del Ayuntamiento, cara a darle utilidad en un futuro



Errieta

## 2006KO AZAROAREN 29KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 29 DE NOVIEMBRE DE 2006

izateko.

próximo.

Adierazitakoagatik, EBko ordezkariak proposamena onartu du.

Por lo expuesto anteriormente el representante de IU-EB da su aceptación a la propuesta,.

Maribel Vaquerok hartu du berriz ere hitza, eta adierazi du bistan denez unea eta egoera aprobetxatzen ari direla lokalak erosteko proposamen hori berriz egiteko, iaz gizarte zerbitzuetako inbertsio gisa proposatu zuten bezala. Eta arrazoia hau da: haien ustez, Urnietak osasun etxe berria eta eguneko zentroa behar ditu, gure nagusiek egunero beste herri batzuetara joan beharrik izan ez dezaten. Adierazi du, halaber, pozten dela alderdi sozialistak iritzia aldatu duelako eta orain lokal horiek erostea onartzen duelako.

Toma la palabra de nuevo Maribel Vaquero señalando que evidentemente aprovechan el momento y la coyuntura para volver a presentar esa propuesta de compra de locales, tal y como la propusieron hace un año como inversión para servicios sociales. El motivo radica en que ellos entienden que Urnieta necesita un nuevo centro de salud y un centro de día para que nuestros mayores no tengan que ser trasladados diariamente a otros municipios. Señala a su vez que se alegra de que el partido socialista haya cambiado de opinión y que ahora sí apruebe la compra de esos locales

PSE-PSOEko ordezkari Hermenegildo Gonzalez Moranek erantzun dio esanez ados daudela, eta, batez ere, lokalen prezioarekin daudela ados, kontuan hartuta batez ere ze garesti ordaindu zituzten haur eskolako lokalak. EAJ-EAko bozeramaile Maribel Vaquerok erantzun dio esanez beraiei ez zaiela iruditzen asko ordaindu zutenik, eta, etxebizitzarekin gertatzen den bezala, hemen ere prezioak ez direla berberak libreak, prezio finkatukoak edo babes ofizialekoak izan, eta, gainera, haur eskolako beharrezko inbertsioa zela.

Le responde el representante del PSE-PSOE Hermenegildo González Morán señalando que sí están de acuerdo y sobre todo con el precio de los locales, sobre todo teniendo en cuenta el elevado precio que se pagó por la adquisición de los locales destinados a la ubicación de la guardería. Le contesta la portavoz del PNV-EA Maribel Vaquero señalando que a ellos no les parece caro el precio que se pagó y que tal y como ocurre con la vivienda no son los mismo precios los de la vivienda libre, la tasada y las de protección oficial, y que además la guardería era una inversión necesaria.

Hermenegildo Gonzalez Moranek bere azalpena amaitu du esanez ez dagoela ados eguneko zentroa eraikin bakarrean jartzearekin.


Finaliza la exposición Hermenegildo González Morán señalando "no está de acuerdo con la ubicación del centro de día en un edificio único".

#### 4.- UDALHITZ hitzarmenaren onarpena

#### 4.- Aprobación del Convenio UDALHITZ

Nagore Alkorta idazkariak hartu du hitza, eta adierazi du 2006ko martxoaren 9an sinatu zutela UDALHITZ (tokiko euskal instituzioetako funtzionarioen lan baldintzei buruzko hitzarmena), EUDEL en eta ELA, CCOO eta UGT sindikatuen artean, eta horren ondotik, Urnietako Udaleko negoziazio mahaia eratu zela. Idazkariak adierazi du Urnietako Udaleko langile eta lan-kontratuko langileei UDALHITZ

Toma la palabra la Secretaria Nagore Alkorta para señalar que a fecha 9 de marzo de 2006 se firmó el UDALHITZ (Acuerdo regulador de los condiciones de trabajo de los funcionarios de las instituciones locales vascas) entre EUDEL y los sindicatos ELA, CC.OO Y UGT y que tras el mismo se constituyó la correspondiente Mesa de Negociación en el Ayuntamiento de Urnieta. Señala la secretaria que, para la aplicación del UDALHITZ

*Urnietako Udala**Ayuntamiento de Urnieta**Eguzkia*

## 2006KO AZAROAREN 29KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 29 DE NOVIEMBRE DE 2006

aplikatzeko beharrezkoa dela udalbatzaren akordio bidez onartzea. a los funcionarios y al personal laboral del Ayuntamiento de Urnieta es necesario su aprobación mediante acuerdo plenario.

Eztabaidaren ostean, alkateak botazioa egitea proposatu du, eta emaitza hau izan da: Tras el debate, el alcalde propone someterlo a votación, obteniendo el siguiente resultado:

Alde: 10 (6 EAJ-EA, 3 PSE-EE, 1 EB)  
Kontra: 0  
Abstentzioak: 1 (PP)

A favor: 10 (6 PNV-EA, 3 PSE-EE, 1 IU)  
En contra: 0  
Abstenciones: 1 (PP)

Ikusirik 2006ko urriaren 26ko Kulturako Informazio Batzordean hitz egin zela gai honi buruz eta eman zela informazioa. Visto que en la Comisión Informativa de Cultura y celebrada el 26 de octubre de 2006 se trató e informó sobre este punto.

Botazioaren ostean, Udalbatzak gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin hartu du honako Tras la votación, el Pleno con el voto a favor de la mayoría absoluta de los miembros que conforman la Corporación ha adoptado el siguiente

### AKORDIOA

### ACUERDO

**Lehenengoa.-** UDALHITZ hitzarmena onartzea.  
**Bigarrena.-** UDALHITZ hitzarmena gordailuan uztea eta argitaratzea.

**Primero:** Aprobar el Convenio UDALHITZ  
**Segundo:** Depositar y publicar el Convenio UDALHITZ.

### 5.-Galde-eskeak

### 5.- Ruegos y preguntas

EBko ordezkari Juan M. Tomasenak hartu du hitza, eta honako galdera hauek egin ditu:

Toma la palabra el representante de IU-EB Juan M<sup>a</sup> Tomasenak haciendo referencia a los siguientes puntos:

- Noiz pasatuko dituzte Mikaela Eneko tutoretzapeko etxebizitzak?

- Cuándo se pasarán los pisos tutelados a Mikaela Enea

Maribel Vaquerok erantzun dio esanez Gipuzkoako Foru Aldundiko Departamentuarekin harremanetan daudela, eskualdatzea egiteko.


Le contesta Maribel Vaquero señalando que están en contacto con el correspondiente departamento de la Diputación Foral de Gipuzkoa al objeto de que, se realice el traspaso.

- Langileen proposamena

- Propuesta de los trabajadores

Florentino Ugalde alkateak hartu du hitza, eta esan du horri buruzko edozein erabaki hartzeko politikarien arteko adostasuna behar dela eta orain arte ez dutela halakorik lortu; beraz, ez da ezer erabaki horri buruz.

Toma la palabra el Alcalde Florentino Ugalde para señalar que cualquier decisión que se adopte al respecto requiere un consenso entre los políticos no logrado hasta estos momentos por lo que no se ha adoptado ningún acuerdo al respecto.



**2006KO AZAROAREN 29KO UDALBATZARRAREN AKTA  
ACTA DEL PLENO DEL 29 DE NOVIEMBRE DE 2006**

- EAJ-EAko bozeramaileak hartu du hitza, eta emakumeen kontrako indarkeria amaitzeko nazioarteko eguna dela-eta egindako adierazpen instituzionalaren berri eman du. Adierazpen hori Udalbatzak berrestea proposatu du. Udalbatzako kideak ados azaldu diru emakumeen kontrako indarkeria amaitzeko eguna dela-eta egindako adierazpen instituzionalari atxikitzeko.

- Toma la palabra la portavoz del PNV-EA dando cuenta de la Declaración Institucional con motivo del Día Internacional para la eliminación de la violencia contra la mujeres, declaración que propone sea ratificada por la corporación. Los miembros de la corporación muestran su consenso en la adscripción a la Declaración Institucional con motivo del Día Internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du ohiz kanpoko udalbatzar hau, goian adierazitako egunean, arratsaldeko lauak eta bostean, eta nik, Urnieta bitarteko idazkariak, hala egiaztatu dut, alkatearen oniritziarekin.

No habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno ordinario, siendo las cuatro y cinco del día indicado en el encabezamiento, se levanta la sesión, de la que yo, la secretaria interina de Urnieta, certifico con la aprobación del Alcalde.

Sin.: Nagore Alkorta Etxeola  
Bitarteko idazkaria,



Sin.: Florentino Ugalde Atxaga  
Alkate-lehendakaria,

